

@@@AGINDUA, 2011ko uztailaren 27koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Donostiako «Santa Teresa» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena emateko dena.@@@

Donostiako (Gipuzkoa) «Santa Teresa» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titularra den «Compañía de Santa Teresa de Jesús» erakundearen legezko ordezkariak abiarazi duen espedienteaz aztertu da, non baimena eskatzen baita ikastetxearen titulartasuna aldatzeko.

Espediente hori Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek hari buruzko txostena eman dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, heziketarako eskubidea arautzen duena; 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa; 131/2010 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duena; eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Donostiako «Santa Teresa» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena ematen da; egun, «Compañía de Santa Teresa de Jesús» erakundeak du titulartasuna, baina, aurrerantzean, «Fundación Escuela Teresiana» erakundeak izango du, eta ikastetxea eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko du. Ikastetxea Donostiako (Gipuzkoa) Manuel Lardizabal pasealekuan dago, 25. zenbakian, eta 20004149 kode-zenbakia du.

2. artikulua.- Titulartasun-aldaketa Ikastetxeen Erregistroan inskribatuko da, baina horrek ez du inolako eraginik izango ikastetxearen ohiko jardunean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honek 2011ko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena.- Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 27a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.